



Ahazten diren gauzak. Aritz Gorrotxategi

ISBN: 978-84-9109-311-4

Saila: Narratiba, 113

Orriak: 136

Salneurria: 15 €

Ipuin-bilduma hau eta egilearen aurrekoa, *Zer egingo dugu orain opariekín?*, sormen prozesu beretik sortuak dira, enbor beretik. Liburuak eta biniloak alderatuz gero, lasai esan daiteke *Ahazten diren gauzak* aurreko ipuin-bildumaren B aldea dela, jarraipen moduko bat. Orduko hartan ukitu soziala eta krisia ziren nagusi, giza harremanak, denboraren herdoila... Honako honetan ere ezaugarri horiek errepikatzen dira neurri handi batean. Egunerokoan hizpide izaten ditugun hainbat gai jorratzen ditu idazleak: lanaren mundua, sexu-jazarpena, etorkinen gaia... Halaber, gai unibertsalagoak ere badira: heriotza, eromena, bakardadea, memoria historikoa... Idazkera argiz eta estilo minimalistaz idatzitako ipuinak dira, eta gehienak "pesimismo irribarretsu" halako batez blaituak daude. Ipuin gehienak gure ingurunean kokatzen dira, baina bildumari izenburua ematen dio ipuinak, adibidez, Kioseko uhartera garamatza. Beharbada, honako liburu honek ukitu goibelagoa du, aurrekoaren ukitu umoretsu eta ironikoaren aldean, nahiz bi osagarri horiek ere agerikoak izan idazlearen idazketan.

Liburuari hasieran ematen dion ipuinean memoriari buruzko tratatu labur bat idazten duen agure bat ezagutuko dugu. Euskal gatazkaren gora beherek ere leku nabarmena dute bilduman, angelu ezberdinak bilatzen dituen hurbilketa baten eskutik. Batetik, kartzela giroa hurbil duen bikote baten herdoiltze prozesua ezagutuko dugu. Bestetik, 90eko hamarkadaren erdialdeko girora ere hurbilduko gara, manifestazioen eta kontramanifestazioen zurrunbilora. *Gorroto haut* ipuinak erretzeari utzi nahi dion langile baten odisea apur bat surrealista kontatzen digu, iraultzaile xeble batzuk ere protagonistatzat dituen. *Erabakian* lanaz eta saileko arduradunaren sexu gehiegikeriez nazkatuta dagoen emakume bat lana uzteko kemena bilatzen saiatuko da lantokiko igogailuan. *Senza ten* beste emakume batek bere amaren minbizia ezagutuko du gertutik, eztarrian itotzen zaizkion hitzak ezin atera. *Magrebatarra eta aterkia* ipuinean agerian geratuko da hemengook etorkinekiko dugun jarrera hipokrita eta epela. *Ahazten diren gauzak* ipuinean, berriz, etorkinei lagundu nahi dien Kioseko emakume adindu baten arazoak kontatzen zaizkigu, eskuin muturreko *Egunsenti Urrekara* taldearen gorakada medio. Izenburuan Cortazarri keinu egiten dio bildumako azken ipuinak Gogol idazle errusiarrari egiten dio omenaldia.

Liburuan bildutako zenbait ipuin sarituak eta beste itxura baten pean argitaratuta izan dira han-hemenka.

Aritz Gorrotxategi
Donostia, 2018ko azaroak 21